

EKIN LEIOA



Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO

Herrigune Leioa




Haurren Hirien Sarea

HERRIGUNE EFEKTUA: ES HORA DE HACER

Herrigune proiektu hetdua da. 17 urte daramatzagu komunitate mailan lanean: jolasten, parte-hartzen, egiten... eta uste dugu elkarrekin hausnartzeko garaia dela.

Del 2 al 6 de julio le proponemos HACER JUNTO no hay edad, conocimiento, experiencia... que no sea útil o importante. Herrigune es un proyecto de todos y se hace de volver a pensar entre todos. ¿Qué queremos que sea Herrigune? ¿Cómo podemos aprender juntos? ¿Cómo hacer comunidad? ¿Cómo cuidar a los proyectos ciudadanos para que nos beneficien a todos? ¿Cómo hacemos para trabajar juntos ayuntamiento y ciudadanía? Ven y participa es hora de hacer juntos!



Dokumentu honek, modu argi, zehatz eta ulergarri batean, **Herrigune Leioa** udal proiektuan garatzen diren partaidetza prozesuak nola, noiz eta zertarako sortzen eta aktibatzen diren jasotzen du.

Berrikuntza publiko eta sozialean pentsatuz, eta erakundeak eta herritarrek elkarrekin egiteko helburuarekin, osasuna eta ongizate komunitarioa sortzen duen partaidetza estrategia bat sortu da, bi aldeen artean partekatutako erantzukizun-kultura sustatzeko ere balio duena.

HERRI-

GUNE

LEIOA

TESTUINGURUA

Dokumentu hau, Herrigune Leioan parte hartzen duten udal eragileek (teknikariak eta politikariak) eta herritarrek (elkarte batean barruan ez daudenak) egindako **hausnarketa partekatu** sakonaren ondorioz sortu da.

Hausnarketaren abiapuntua Herrigune proiektu komunitarioa ia 20 urtez garatzeak dakarren esperientzia izan da, eragile bakoitzaren nahiak eta beharrak ulertzea bilatzen duena, eta, aldi berean, **lan-kidetzeta eta partaidetzeta kolaboraziorako estrategia** berriak sortu.

Hausnarketa horren ondorioz, Herrigune Leioa "Herritar Laborategi" gisa definitzen da, eta datozen urteetako komunitatearen aldeko hiru lan-ildoak diseinatzen dira: **Hazi, Ekin eta Garatu**.

Hau da, laborategi bat, auzotar bakoitzaren **hazkuntzan eta garapen pertsonalean**, herritarren **gaikuntzan eta ahalduntzean** eta **parte-hartze komunitarioko** egituren garapenean oinarritzen dena, non komunitateko eragileak aurkitu gaitezke.



ZER DA HERRIGUNE LEIOA?

Herrigune Leioa udal-eremuko herritarren laborategia da, zein ikaskuntza-prozesu kolektiboak bultzatzen ditu, komunitatea bere interes eta beharretatik abiatuta konektatuz eta ongizate komunitarioko ekimenak bultzatuz.

Gune horretatik habiatuta, 3 lan-ildo ezartzen dira. Ildo horietako bakoitzak garapen komunitarioko helburu eta esparru desberdinei erantzuten die (pertsonala, kolektiboa eta publikoa). Estrategia desberdinekin baina elkarren artean lotura estua dutenak.



• Hazi Leioa. Garapen eta hazkunde pertsonala sarean.

Herritarren garapen eta hazkunde pertsonalerako lan-eremua da. Pertsonen arreta emateko, zaintzeko eta beharrezko baliabideak eskaintzeko gunea; pertsonen beren ikaskuntzetan lagunduz eta, betiere, beste batzuekin topaketa bilatuz.



• Ekin Leioa. Herritarren Berrikuntzarako Laborategia: Gaikuntza eta ahalduntzea.

Herritarren garapen kolektiborako lan-eremua da. Hau da, jabeakuntzarako, ekintzazaintzarako eta gaikuntzarako espazioa, komunitate-arloan arreta jartzen duena. Behar komunitatik abiatuta eta erronka kolektibotan lan egiten den lan-ildo da.



• Garatu Leioa. Berrikuntza Publiko eta Soziala: ekimenak eta aurrekontu irekiak.

Udal-erakundearen barrura begira dagoen lan-ildo da. Bertako-administrazioan berrikuntza publiko eta sozialaren kultura sustatzeko helburua duena. Herritar eta instituzioaren arteko topaketarako eta lan bateraturako guneak sortzeko.

GLOSATEGIA

Dokumentu hau irakurtzen eta ulertzen lagundu ahal izateko, glosategia izeneko atala sortu dugu.

Atal honetan, dokumentuan zehar erabiltzen diren hitz eta kontzeptu desberdinen definizioak jasotzen dira, elkar ulertzeko erreferentzia espazioa da hau.

ELKAR ULERTZEKO HIZKUNTZA

Askotan Herriguneren inguruan hitz egiten dugunean hainbat kontzeptu abstraktuegiak dira. Batzuetan ere ez dira ulerterrazak eta interpretazio eta ñabardura askotara irekita daudela badakigu. Horregatik, kontzeptu batzuei buruz eztabaidatzen dugunean gauza berari buruz hitz egiten dugula ziurtatzeko, teknikariek, politikariek, herritarrek eta Herriguneren idazkaritza teknikoak elkarrekin egin genuen hausnarketan parametro batzuk zehaztu genituen, lanari aurre egin ahal izateko. Parametro horiek adierazle gisa erabili genituen, kontzeptuak batera definitu ahal izateko:

- **Egiazkotasuna:** Gida honetan erabiltzen diren eta elkarlanean sortu diren kontzeptuen, esanahian egiazkotasun maila baliozkotua izatea eta beste definizio "akademiko" batzuekin kontrastatua egotea. Hau da, erabilitako kontzeptuekiko dagoen ulermen komunarekin nolabaiteko adostasuna izatea.
- **Irakurgarritasuna.** Gida honetako definizioak edonork erabiltzeko modukoak izatea ("haurraren parametroa" ere kontuan hartuta), formakuntza, adina edo beste edozein baldintza izanda ere.

Kontzeptu-ardatz horiez gain, dokumentu honetan beste kontzeptu batzuk ere erabiltzen dira, glosategi honetan sartu ditugunak dokumentua ulertzen laguntzeko. Hala ere, Ekintza Tailerran parte hartzen duten herritarrek euren esanahia ondo ezagutzen dute.

Guztien onura.

Pertsona guztientzat onuragarriak diren baldintza orokorrak betetzen dituzten helburuak, adina, sexua, jatorria edo formakuntza edozein izanik ere.

Elkarrekin egin.

Instituzio eta herritarren artean erronka kolektibo bat gauzatu ahal izatea. Elkarrekin lan egin osasuna sustatzen eta ikasketa prozesu gisa lagungarri izan daitekeen edozein ekintza eraikitzeko. Betiere bi aldeek erritmoak eta beharrak kontuan hartuz, kudeaketa eraginkorra eta efizientea lortzeko.

Osasuna sortzen duen herritarren partaidetza.

Partaidetza prozesuek komunitateen osasuna eta ongizatea handitzeko ahalmena dute, ekintza komunitarioak garatzeko funtsezko hiru printzipio kontuan hartuz:

- Parte-hartzaileen arteko **aniztasuna**.
- Erabakiak hartzerako orduan, partaideen **autonomia** kontuan hartzea.
- Prozesuan zehar eraikitzen diren **harremanak**.

Haurraren parametroa.

Francesco Tonnuccik azaltzen duen bezala, haurren berezko aniztasuna aniztasun guztien berma bezala ulertzean datza. Horrela, haurrarentzat pentsatuta dagoen edozein aniztasun guztietarako ere baliagarria izango da.

Erronka kolektiboa.

Herritarrek eta administrazioak beren gain hartu behar dituzten asmoak. Osasuna sustatu eta ongizate komunitarioa lortzeko lan egitea helburu dutenak, eta instituzio eta herritarren artean gauzatzen direnak, bi aldeek artean erantzunkidetasuna sortuz.

Erantzukidetasuna.

Bi pertsona edo gehiagoren artean egoera edo jarduera batean erantzukizuna partekatzea. Zeinetan inplikaturik dauden eragile guztiek asmo bat gauzatzeko konpromisoa hartzen duten, prozesuaren ikuspegi integrala kontuan hartuta. Erantzunkide diren pertsonen artean babesa eta laguntza sortuz.

Udal eragileek elkar ulertzeko hizkuntza saioetan egindako lanetik, prozesuaren garapenean beharrezkotzat ulertzen diren ardatz-kontzeptuen esanahia zehaztu zen. 4 izan dira landutako ardatz-kontzeptuak: **Ekintza Tailerra (herritar laborategia), Herritar berrikuntza, Berrikuntza Publikoa eta Kultura Lab.**

Kontzeptu horien definizioa hiru mailatan antolatu da:

- Lehen mailan, "Gida-definizioak" deitu ditugunak daude: tokiko eta/edo nazioarteko hainbat eragilek eta erakundek egindako erreferentziazko dokumentuetatik ateratakoak. Alde batetik, definizioen abiapuntu gisa erabili ziren, eta, bestetik, gure definizioen "egiazkotasun maila" neurtzeko.
- Bigarren mailan "Elkarrekin egindako definizioak" daude. Garaturen Talde Sustatzaileak (teknikariek eta politikariek osatua) "gida-definizioetatik" abiatuta eta bi parametroak (egiazkotasuna eta irakurgarritasuna) kontuan hartuz, sortutakoa.
- Azkenik, "Herritarren definizioak" daude: herritar talde ezberdin batek (11 eta 80 urte bitartean, hezkuntza maila desberdinetakoak, etab.) Garatu TS-ak sortutako definizioen "irakurgarritasun" maila (irisgarritasuna, ulergarritasuna...) sakonduz birmoldatutako definizioak.



Ekintza Tailerra (Herritar Laborategia)

- **Gida - Definizioa:**

Laborategia bitarteko tresna gisa ulertzea: herritar berrikuntza pertsonen eta erakundeen interesetara lurralde eta hainbat esparruetara zabaltzea, (garapen pertsonalari eta erronka kolektiboetara lotuta). Konexio, topaketa eta kidetasun espazio bat da, non konfiantzazko eta lankidetzan harremanak eta ikaskuntza eta praktika komunitateak garatzen diren. Guztion onurarako ekimenak sustatzeko helburuarekin, metodologian, sistematizazioan, ebaluazioan eta transferentzian laguntza eskainiz.

- **Elkarrekin egindako definizioa:**

Lankidetzan aritzeko beste pertsona eta kolektibo batzuekin topo egin ahal izateko guneak eta sareak dira, non norberaren hazkunderako eta ongizate komunitarioan lan egiteko baliabideak eta baldintzak eskaintzen diren.

- **Herritar - Definizioa:**

Espazioak, pertsonak, haien arteko harremanak eta konexioak dira. Lankidetzarako beste pertsona eta talde batzuekin topo egiteko leku bat. Bertan, tresnak, materialak, jolas-arauak eta zaintzak eskaintzen dira, norberaren hazkunderako eta auzokideek guztion onuraren inguruan lan egiteko.

Herritar Berrikuntza

- **Definizioa - Gida:**

Eragin egiten dion komunitatearen inplikazioaren bidez, arazo sozialak teknologia eta metodologia irekiekin (digitalak, sozialak, antzinakoak) konpontzen saiatzen den prozesua da. Honek suposatzen du herritarrak ekintza instituzionalen hartzaille pasibo izateari uzten diotela, eta beren irtenbideen protagonista eta ekoizle bihurtzen direla.

- **Elkarrekin egindako definizioa:**

Arazoak konpontzeko eragin egiten dien pertsonak inplikaturik lankidetzan modu berriak bilatzea.

- **Herritar - Definizioa:**

Arazoak konpontzeko eta harremantzeko modu berriak bilatzea, guztion artean konponduz eta elkarrengandik ikasiz.

Berrikuntza Publikoa.

- **Gida – Definizioa:**

Berrikuntza Publikoaz ari garenean, hurrengoaz hitz egiten ari gara: herritarrentzat eta herritarrekiko pentsatutako zerbitzu publikoak; administrazio irekia: politika publikoetan gardentasuna, parte-hartzea eta herritar lankidetzaz bezalako balioak; administrazio autokritikoa, bere estrategia planifikatu eta emaitzak ebaluatzen dituen; eta baliabide publikoak eraginkortasunez esleitu eta erabiltzen dituen administrazioa.

- **Elkarrekin egindako definizioa:**

Aldaketara irekitako administrazio publikoaren aldeko apustua egiten jarraitzea, gardena eta inklusiboa, eta pertsonak kontuan hartzen dituen. Sinergiak bilatuz eta berrikuntza soziala eta "elkarrekin egitea" bultzatuz, baliabideen kudeaketa eraginkor eta efizientearekin.

- **Herritar - Definizioa:**

Parte hartuko duen eta herritarrei entzungo dien udal baten aldeko apustua egiten jarraitzea; jendeari irekia, gertukoa, modernoa eta irisgarria. Konexioak bilatzen dituen, herritarren garapena bultzatuz, baliabideak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatuz.

KulturaLab

(* Ez zen herritarrekin landu.)

- **Gida - Definizioa:**

KulturaLab bat sustatzeak berekin dakar diziplina-, lurralde- eta gaitasun-eremuak konbinatzea; gaitasunak, jakintzak eta esperientziak gurutzatzea; erronka eta interes komunen inguruko ahaleginak mutualizatzea, eta askotariko eragileen arteko zeharkako aliantzak sustatzea, gutxieneko printzipio eta interes komunak dituztenak, testuinguru mesedegarriak eta proiektu zehatzak garatzeko.

- **Elkarrekin egindako definizioa:**

Laborategien filosofia eta praktika zabaltzea da, "Elkarrekin egitearen kultura", espazio publiko zein pribatuak bultzatuz eta irekiz.

EKIN

**Herrigunen herritar partaidetzarako gida.
Ekimen komunitarioak eta Erronka Kolektiboan garapena.**

LEIOLA

ZER DA EGIN?

Herritarren garapen kolektiboa bultzatzeko lan-eremua da. Hau da, jabe-kuntzarako eta gaitzuntzarako espazio bat, arreta komunitatean jartzen duena, non premia komunak murrizten diren, "Erronka kolektiboak" deitu dugunetik abiatuta.

Berrikuntza praktikatzeko gune bat, non lankidetzarako forma berriak frogatzen diren, arazo edo behar komunei irtenbideak bilatzeko, betiere pertsonak kontuan hartuz.

ZERTARAKO?

Hazkunde eta garapen pertsonaleko prozesu orok, testuinguru komunitario batean gertatzen denean, komunitateari eragiten dio. Baieztapen testuinguru batean hazten diren pertsonak, euren balio pertsonala aitortuta ikusten dute, gai direla sentitzen dute, -batez ere beste batzuekin batera egiteko ahalmena dutela sentiaraziz-. Pertsona hauek ahalduz bide bat egiten dute eta denborarekin herritar aktiboak izan daitekeela sinisten dute, guztiontzat onuragarriak izan daitezketen ideia, proposamenak eta ekimenak proposatzera helduz. Horrela, ikuspegi komunitario bat sortzen da, pertsonak elkarrekin egin nahi izatera bultzatzen dituen.

EKIN **lan-ildoak herritar berrikuntza** bultzatzeko sortu da – Garatu Talde Sustatzailearen esanetan: "Arazoak konpontzeko eragin egiten dien pertsonak inplikatzuz lankidetzarako modu berriak bilatzea". Pertsonen autonomia eta erabakitzekeko jarduteko gaitasun handiagoa ematen saiatuz, parte hartzekeo **inguruneak eta egiturak sustatuz** eta **sare komunitarioak sortuz**.

EKIN lankidetzarako- eta partaidetzarako-modu berriak esperimendatzeko gunea da, elkarrekin egiteko aukera ematen duena; herritar-ekimen komunitarioak diseinatzekeo eta garatzeko gunea da; azken batean, laborategi bat, non herritarrek erronka kolektiboen inguruan parte hartzen eta aktibatzen ikasiko duten.

NOLA?

EKINen parte hartzeko prozesua 3 fasetan zehaztu dugu. Hurrengo orrialdeetan, herritarrek parte hartzeko prozesuetan nola parte hartu behar duten, nork parte har dezakeen eta zer urrats egin behar diren azaltzen dira. Baita zeintzuk diren parte hartzeko Jolas-Arauek eta ekimen kolektibo bat martxan jartzeko bideak ere.

1.FASEA. ERRONKA KOLEKTIBOAK:

AURKEZPENA, BILKETA, TAMIZATZEA ETA PROPOSAMENEN NAUTAKETA.

a. Zer da Erronka Kolektibo bat?

Herritarrek edota instituzioak proposatu dezaketen eta elkarrekin lantzeko konpromisoarekin, Talde Eragilean bidez garatzen den ekimena da.

Erronka kolektiboak Talde Eragilean (**herritarrek eta Udal teknikariek bai politikariek osatutako taldeak**) bitartez diseinatu, prototipatu eta garatzen dira. Prozesua Herriguneren Laborategian ematen da, proiektuaren hezitzaileen laguntzarekin batera eta jolas-arau argi eta garden batzuk oinarri hartuta.

b. Zertarako?

Erronka kolektiboek irtenbide berriak sortzea edota Leioako bizilagunen **bizitza eta ongizatea hobetuko dituzten ekimen komunitarioak** garatzea dute helburu.

c. Nork parte har dezake?

Erronka Kolektiboaren proposamenean **Leioako udalerrian erroldatutako edozein pertsonak parte har dezake, banaka**, adina edozein dela ere (haurtzarotik etaparik helduenetara), bai eta lana dela-eta **udalerrian bizi direnek** (profesionalak, ikasleak...) edo **udalerriarekin sustrairen bat dutenek** ere (merkatariak, lokalen titularrak, familia-loturak, etab.). Kolektiboek eta elkarteek tokiko partaidetzarako beste bide eta egitura batzuk dituzte.

Udaleko teknikariek eta politikariek ere aurkez ditzakete herritar talde batekin landu eta garatu nahi dituzten proposamenak, baldin eta EKINentzat zehaztutako esparruaren barruan sartzen badira. Era berean, proposamen horiek herritarrentzat zehaztutako jokoa arau berberen mende egongo dira.

d. Proposamenak aurkeztea eta jasotzea.

- Proposamen bat aurkezteko, beharrezkoa da **fitxa bat betetzea**, non proposamena nondik nora doan argi eta zehatz geratu behar den. (Ikusi "1. eranskina: erronka kolektiboaren proposamenaren fitxa").
 - **Gutxi gorabehera 15 eguneko epea** egongo da, jakinarazpen ofiziala egin eta epea irekitzen denetik, proposamenak luzatzeko. Deialdia udalaren komunikazio-bideen bidez egingo da (udal-aldizkaria, leioa zabalik webgunea, herrigunearen webgunea...).
 - Proposamenak aurkeztu nahi dituzten pertsona guztiek kontuan izan behar dute ezinbestekoa izango dela **Tamizatze tailerren parte hartzea** (ikus e puntua), proposatutako Erronka Kolektiboa azaltzeko eta argudiatzeko. Herrigunek pertsonak prozesu honetan lagunduko ditu.
 - Herritarren eta instituzioaren **proposamenen bilketa** honela koordinatuko da:
 - Ekintza Tailerra, Iturriondo 10, 2º Eskuma;
 - Herritarren arreta emateko zerbitzua, Udaletxe bertan eta Gaztelubiden, Langilería 202;
 - Aterpe Leioa Gaztegunea (Leioako Udaleko Gazteria Zerbitzua), Aldapabarrena 2;
 - Halaber, postontziak jarriko dira kalean herritarren eskura.
- Nahi dutenek, proposamenak online bitartez **bidali dezakete, udalaren web orrialdearen bitartez.**
 - Proposamenak entregatzeko epea amaitutakoan, 15 eguneko epean, **lehenengo hautaketa egingo da**, jasotako proposamen guztiek irizpideak betetzen dituztela egiaztatzeko. Balioztatze hori Garatu Talde Sustatzaileak egingo du.
 - Aurre hautaketaren ondoren, **herritarrei euren parte hartzea eskertuko** zaie (eurek erabilgaitako kanal berdinak erabiliz) eta Tamizatze Tailerren parte hartzera gonbidatuko zaie. Gida honetan zehaztutako irizpideak betetzen ez dituzten proposamenen kasuan, euren proposamena aurrera ez egiteko arrazoiak zeintzuk diren azaldu eta Tamizatze Tailerren parte hartzera ere gonbidatuak izango dira, proposamenak ahal izatekotan egokitzeko.
 - Bestalde, herritarrez gain, Udalak ere Erronka Kolektibo bat proposa dezake, Talde Eragile baten bidez elkarrekin parte hartzeko.
 - Udalak berak egindako proposamenek aurkezteko irizpideak ere bete behar ditu.
 - Gobernu Taldeak erabakiko du zein izango den herritarrei aurkeztuko dien Erronka Kolektiboa.
 - Teknikariek proposamenak, arduradun politikoen bidez, egin ditzakete edo udaletxean bertan gaitutako lekuetan utzi, 15 eguneko epean.

- Ondoren, Hautaketa Topaketan gehienez bi proposamen aukeratuko dira. Hau da, **urtero askoz jota 2 Erronka Kolektibo** landuko dira, haiek herritarrek zein udalak proposatu dituztelarik.

Salbuespen bezala, aurreko ikasturteko erronkaren garapena bukatu ez bada, ikasturte horretan soilik Erronka Kolektibo bakarra aukeratuko da. Soberan geratzen den erronka "erreserba" moduan geldituko da.


PROPOSAMENAK AURKEZTEKO IRIZPIDEAK (ERRONKA KOLEKTIBOAK):

1. Erronka kolektiboek **"guztion onerako ekimenak"** izan behar dute: komunitatearen indartzea, gizarte-ekitatea, elkarrekiko laguntza eta tokiko erresilientzia bultzatuz.
2. Interes orokorrak eta guztientzako onuragarriak izatea lehentasuna izan behar dute interes partikularren gainetik.
3. Udal-eskumeneko proposamenak izan behar dute, eta edukia ez da legez kanpoko, difamatzailea edo diskriminatzailea izan behar.
4. Dagoeneko martxan ez dauden edo aurrekontu arruntean jasota ez dauden proposamenak izan behar dute.
5. Udalerriaren lurralde-oreka bermatu behar dute.
6. Unean uneko gobernu-taldeak duen aginte-planarekin bat etorri behar dute, bai eta ekonomikoki bideragarria eta iraunkorra izan ere.



e. TAMIZAZATZE-Tailerra: Erronka kolektiboak hautatzeko

- Tamizatze Tailerra Ekinen helburuak eta egitura ulertzeko saioa da. Bertan jasotako proposamenen inguruan hausnarketa kolektibo bat egin ondoren, erronka kolektibo bihurtzeko moldatu egiten dira. Elkar ezagutzeko, aliantzak sortzeko eta herritarren erronka kolektiboen bideo laburrak grabatzeko topaketa da.
- Garatu Talde Sustatzaileak proposamenen lehen hautaketa egiteaz arduratzen da. Banan banan aztertzen ditu Ekinen jolas-arauak eta irizpideak betetzen dituztela ziurtatzeko. Baten bat irizpide hauek betetzen ez baditu, testuinguruan kokatzeko eta justifikatzeko behar diren arrazoiak eta argudioak azalduko ditu.
- Tamizatze Tailerra Onditorren ospatuko da non Herriguneraren hezitzaileek saioaz dinamizatzeaz arduratuko diren.
- Tailerrean proposamenen bat aurkeztu duten pertsona guztiek parte hartuko dute, eta beraien zehaztu, azaldu eta argudiatuko dituzte beren ideiak.
- Tailerrean erronkak zehaztu ondoren, Laborategiko langileak hurrengo ikasturteko erronkak Partaidetzako zinegotziari helarazteaz arduratuko dira. Zinegotziak, era berean, erronka bakoitza eragiten dien arlo bakoitzaren arduradun politikoei jakinarazi beharko die. Erronkak hiru kategorietan bananduko dira: bideragarriak, bideratuak eta baliogabeak.
- Erronka guztiak bideo formatuan eta arlo bakoitzeko arduradun politikoei haien inguruan emandako erantzunak ikusgai egongo dira ekinleioa.solasgune.com plataforman, erronkak zabaltzeko eta hauek garatzeko aliatuak (gaiarekin konprometituta dauden herritarrak) bilatzeko,.



f. HAUTAKETA topaketa: Garatu egingo den erronka kolektiboa aukeratzen

- Prozesuan parte hartu nahi duten herritarren artean, garatu nahi diren erronka kolektiboak aukeratzeko espazioa da.
- Herritar guztiei irekita dagoen deialdia da. Erronka kolektiboen hausnarketan eta hautaketan parte hartzeko interesa duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute, eta noski, udalerriko neska-mutilak ere ongietorriak dira.
- Bertan parte hartzeko gogoia duten herritarrek Ekintza Tailerran bere izena eman beharko dute, telefono bidez **-627 503 898-** zein helbide elektronikoa herrigune@leioa.eus etorrera baieztatuz.
- Saioan parte hartzen duten pertsonak erronka garatzeko eratzear dauden Talde Eragile baten parte hartu ahal izango dute.
- Behin erronkak zehaztuta daudelarik, Herriguneko hezitzaileek Partaidetza zinegotziari hurrengo ikasturtera begira garatzear dauden erronkak zeintzuk diren azalduko diote, eta honek, erronka bakoitzak eragindako arlo bakoitzeko ordezkariak jakinarazi beharko die.
- Hautaketa Topaketa Ekintza Tailerran ospatuko da, zeinetan Herriguneko hezitzaileek saioa dinamizatuko duten gaia eta taldearen arabera metodologia egokien bitartez, betiere, haurren parametroa kontuan hartuz.
- Topaketa honi esker, pertsonen autonomian eta erabakitze gaitasunean laguntzen da, parte hartzeko egiturak sustatuz eta komunitate-sareak sortzen lagunduz.



2.FASEA TALDE ERAGILEAREN ERAKETA

a. Zer da Talde Eragilea?

Talde Eragilea Leioan bizi den (edo udalerrian errotuta dagoen) edozein pertsonari **irekitako lantaldea da**, adina edozein dela ere, Erronka Kolektibo bat gauzatzeko biltzen dena.

Proposatutako erronkei konponbide eta proposamen gisa aterako diren ekimenak **garatzeko, diseinatu, prototipatu edo gauzatzeko** azken arduradunak dira.

Talde Eragileek **udaleko sailekin lankidetzan jardungo dute**. Helburua teknikoki bideragarria eta aurrekontu erreala batekin gauzatu daitekeen proposamena lortzea da, eta horretarako gaiaren arloko arduradun tekniko eta politikoaren laguntza izango dute.

b. Nola sortzen da talde eragilea?


Herritarrak dira Talde Eragileak antolatu eta artikulatzeko arduradunak. Lan honetarako, Herrigunereren hezitzaileen laguntza eta aholkularitza izango dute.

Hautaketa Topaketan parte hartu duten eta erronka baten garapenean lan egin nahi duten pertsonek **Talde Eragilea sortu eta antolatzeko arduradunak izango dira**, hau da, **Talde Sustatzailea** izango dira.

Talde Eragile bat lanean hasi ahal izateko, Talde Sustatzaileak bere eraketan **Aniztasun Printzipioa** kontuan hartu behar izango du.

Printzipio horrek udalerriko herritarren parte-hartze anitza, heterogeneoa eta askotarikoa bermatu nahi du, ikuspegi desberdinak eta askotarikoak batuz.

Hau da, Talde Eragile bat sortu ahal izateko, beharrezkoa da taldearen aniztasuna bermatzea. Horretarako, talde eragilea osatzen duten pertsonak gutxieneko irizpide batzuk (desberdintasun-ardatzak) kontuan hartu behar dituzte. Hona hemen orientazio gisa balio dezaketen batzuk:



ANIZTASUN PRINTZIPIOA: ZER DA? ETA NOLA APLIKATZEN DA?

- 1.** Komunitatearen aniztasuna aztertzea eta hura ordezkatzeko duten pertsonak eta erakundeak bereiztea.
- 2.** Komunitateak eta, bereziki, kalteberatasun- edota isolamendu-egoeran dauden taldeek parte hartzeko oztopoak bereiztea.
- 3.** Komunitatearen parte-hartzea errazten duten estrategiak ematea.
- 4.** Partaidetza-prozesuetan haur eta nerabeen parte-hartzen dutela bermatzea.
- 5.** Partaidetza prozesuaren garapen osoan hizkuntza ez-sexista, inklusiboa, argia eta zehatza erabiltzea.

Hona hemen, orientazio gisa, Talde Eragilea sortu nahi duten pertsonen udalerririk eskaintzen duen aniztasuna printzipioak betetzeko kontuan hartu behar dituzten DESBERDINTASUN ARDATZAK

- Lurraldeak (Auzoak)
- Kultura (Komunitatean dauden kultura-gutxiengoak)
- Gizarte-, ekonomia- eta hezkuntza-maila
- Adina (adin-taldeen irudikapena)
- Jaio Lekua eta migrazioa
- Aniztasun funtzionala
- Ideologia edo sinesmen erlijiosoak

c. Talde Eragileak sortzeko estrategiak.

Herrigunen Talde Eragileak sortzen eta eratzen laguntzeko hainbat estrategia ditugu.

Herrigune Leioako hezitzaileek taldeak eratzeko prozesuan lagunduko dute, estrategiak, baliabideak eta metodologia ezberdinak aplikatuz. Hauek dira jada horietako estrategietako batzuk:

- Herritar guztiei irekitako deialdia sortzea, izena eman nahi duen edonork parte hartzeko aukera izan dezan.
- Erronka Kolektiboak proposatzen dituzten pertsonak talde eragilea osatzeko beste pertsona batzuk deitzea. Horrela, ahalduntzea, sareak eta harremanak sortzea sustatzen da.
- Herrigune Leioako hezitzaileek, Ekintza Tailerreko partaideei Talde Eragileetan aktiboki parte hartzera gonbidatuko dituzte.
- Leioaztarren Ezagutza Sarea (BCC_LES) osatzen duten pertsonen ezagutza aprobetxatuz, Talde Eragileetan ekarpenak egin dezaketen pertsonak bilatu.
- Udalerrian errolatutako pertsonen artean "demokrazia zozketa bidez" metodologia erabiltzea, profil jakin batzuk talde eragileetan parte hartzera gonbidatzeko (aniztasun-printzipioa).



d. JOLAS ARAUAK, AKORDIOAK ETA KONPROMISUAK.

Erronka kolektiboa gauzatzeko, Talde Eragileak eta udalak konpromiso, akordio eta jolas-arau hauek hartu beharko dituzte kontuan.

KONPROMISOAK:

Konpromiso batzuk zehaztu ditugu, bai udalak bai herritarrek prozesuaren hasieratik gure gain hartzen ditugunak, elkar zaintzeko giroa bermatzeko:

- Talde Eragileetan parte hartzen duten herritarrek lan-saio guztietan parte hartzeko (egiaztatutako arrazoiak izan ezik) eta puntualtasuna errespetatzeko konpromisoa hartzen dute.
- Prozesuetan parte hartzen duten pertsonak errespetuzko testuinguru batean lan egiteko konpromisoa hartzen dute, pertsonak, ideiak zein eginbeharrekoak errespetatuz.
- Saioetako aktak publikoak izango dira, eta herritarrek hainbat formatutan eskuragarri izango dituzte. Herriguneraren Idazkaritza Teknikoa arduratuko da zeregin horretaz.
- Udalak gutxienez prozesuko hiru saio-tara joateko konpromisoa hartzen du:
 - Aurkezpen-topaketa.
 - Bideragarritasun teknikoan laguntzeko orientazio-saioa.
 - Elkarrekin erabakitze topaketa.

- Prozesua amaitu ondoren, dossier bat argitaratuko da, azken laburpen gisa. Bertan, prozesuaren emaitza eta ebaluazioa partekatua argitaratuko dira. Dokumentu hau Talde Eragileak landutako guztiaren kontu-ematea izango da.

AKORDIOAK:

Bi aldeek Erronken garapen prozesuan hartzen dituzten abiapuntuko erabakiak dira. Edonola ere, Talde Eragileek (udala eta herritarrak) berrikus ditzake.

- Talde Eragilearen herritarren artean, zozketa bidez, 3-5 laguneko taldea aukeratu da (taldearen neurriaren arabera), "Jarraipen Batzordea" eratzeko. Hauek izango dira Talde Eragilearen ordezkari gisa, Orientazio-saioa hurbilduko diren herritarrak.
- "Jarraipen Taldea" hurrengoek osatuko dute: herritarren bitartekariak, Herrigune Leioako idazkaritza teknikoak, prozesuan aholkularitza eta orientazioa emateaz arduratuko diren udal-teknikariak eta erronkaren gaian inplikaturako arloetako zinegotziak.

JOLAS ARAUAK:

Jolas arauak prozesuaren mugak eta arau esparruak zehazten dituzte.

- Talde Eragileak **Leioako herritar guztiei irekitako guneak dira nahitaez**. Hau da, talde hauetan edonork parte har dezake prestakuntza akademikoa, esperientzia, adina -adina ez da mugatzailea- edo jatorria ez du axolarik. Herritarrentzako guneak dira.

- Partaide bakoitzak urte bakoitzeko **Erronka Kolektibo bakar batean parte har dezake**. Hau da, Talde Eragile bakar batean parte har dezake.

- **Urte bakoitzeko gehienez 2 Talde Eragile aurreikusten dira**, bi erronka ezberdin garatuz.

- Erronkaren garapenean, Talde Eragile baten lana denboran luzatzen bada, hurrengo urtera begira erronka berrietako bat bezala zenbatuko da.

- Talde Eragileek **ez dute gehienezko pertsona kopururik zehaztuta**. Hala ere, eskura dauden baliabideen eta espazioen arabera, alternatibak bilatzea beharrezkoa izan daiteke.

- Talde Eragile bat eratzeko eta, beraz, **erronka kolektibo bat abian jartzeko, guxtienez 6 kide egon beharko dira**.

- Erronka batek Talde Eragilea eratzeari lortuko ez balu, erronkaren garapen prozesua baliogabetua geldituko litzateke, eta hurrengo urtean taldea eratzeko aukera berria izango luke.



3. FASEA EKIMENEN GARAPENA

Ekimenak garatzeko, funtsezko saio batzuk identifikatu dira:

- **Aurkezpen topaketa bat**, parte-hartzaileek elkar ezagutzeko;
- **Lan-saioak**, non Erronka Kolektiboa garatzen den;
- **Orientazio saioa**, landutako erronkaren iraunkortasuna eta bideragarritasuna aztertzeko.
- **Eta elkarrekin erabakitze** saio bat.

a. Aurkezpen topaketa

Behin Talde Eragilea eratuta dagoelarik, prozesuari hasiera emango dion lehen topaketa egingo da. Bertan parte hartuko dute:

- Lantaldea osatzen duten herritarrak.

- Erronken gaiak inplikaturako arloetako Udaleko teknikariak, prozesuan orientazioa eta aholkuak emateko.

- Erronken gaiak inplikaturako arloetako politikariak.

Lehen topaketa honen helburu nagusia Talde Eragilea osatuko duten udaleko ordezkariak a eta herritarrak elkar ezagutzea da. Horrela lehen hartu-emana izango dute, begiradak hurbildu ahalko dituzte, gaiaren inguruko kezkak eta nahiak partekatze-ko. "Elkarrekin egiten" ikastea da helburua, Erronka Kolektiboa erraz eta eraginkortasunez gara dadin.

Gainera, saio honetan **prozesuaren jolas arauak adostu eta berrikusiko dira, erabiliko den lan-metodologiari buruz hitz egingo da eta lan-denborak zehaztuko dira.**

Lehenengo saio honetan, eta erronkaren gaiaren arabera, garrantzitsua da Udaleko teknikariak planaren garapenean eragina izan dezaketan araudiak (edo haien aldaketak) partekatu ahal izatea.

b. Talde Eragilearen lan-prozesua.

Erronka Kolektiboa garatzeko prozesua da.

Bere ekimena garatu ahal izateko, Ekintza Tailerraren ordutegi eta aukeren barruan, Talde Eragileak bere ibilbide-orria, zereginen banaketa, jarraipen batzordeko kideak eta abar adostu eta definituko ditu.

Herrigune Leioako idazkaritza teknikoak talde bakoitzari laguntza metodologikoa emango dio, saio bakoitzerako beharrezkoak diren dinamikak eta materialak prestatuz eta egokituz, parte hartzen duten pertsonen proposamenak garatzen laguntzeko.

Lan-prozesurako, Erronka Kolektiboaren garapenean kontuan hartu beharreko hainbat urrats identifikatzen dira:

- Mapaketa bat egitea eta, ondoren, udal-erriaren indarguneak, gabeziak eta behar-erak aztertzea, erronkan iradokitako gai-ari dagokionez.
- Lortu beharreko helburuak zehaztea.
- Erronka kolektiboaren prototipoa, proposamena eta haren ñabardurak identifi-
katu eta bistaratu ahal izateko.
- Azken proposamena zehaztea. Proiek-
tuaren autoebaluazio-sistema.
- Azken saio bat, lan-prozesu osoa az-
tertu eta ebaluatzeko, ondorengo proze-
su berrietarako ikaskuntza-erreferentzia
gisa balioko duena.

c. Orientazio eta aholkularitza Saioa.

Saio honen helburua udalaren eta herritarren arteko azterketa teknikoko topaketa bultzatzea da.

Herritarrek prozesuaren **lehen zirriborrea aurkeztuko dute, politikariek eta teknikariek berrikusteko eta orientatzeko. Lankidetzaren** ikuspegitik, erantzukizun partekatua sustatzen da, non bi aldeek proiektua batzeko lan egingo duten.

Lantaldeak egiten duen zirriborroak ekimenaren proposamena jaso behar du, eta, ahal den neurrian, kontuan hartu behar ditu bideragarritasun teknikorako beharrezkoak diren alderdi guztiak.

Hala ere, lan saio honen helburua, proposamenean egon daitezkeen akatsak eta gabeziak antzematea da, izan ere, helburua Talde Eragileari teknikoki zein ekonomikoki bideragarria den proposamena sortzen laguntzea da.

Teknikarien konpromisoa herritarrei beren ekimenak bideragarritasunari eta iraunkortasunari dagokionez garatzen laguntzea da, eta, horretarako, aholkularitza eta orientazioa lana egingo dute, proposamenean antzemandako hutsune edo akatsak (araudiak, prozedurak, baliabideak, etab.) konpontzeko.

Halaber, arduradun politikoek aztertu behar dute, eta talde eragilearekin partekatu, dagokion sailak edo arloak ekimena bere gain hartzeko (edo ez) duen interesa.

Saio honetan honako hauek parte hartuko dute:

- Talde Eragilearen ordezkariak.
- Herriguneren idazkaritza teknikoa.
- Inplikaturako arduradun teknikoak eta politikoak.

d. Elkarrekin erabakitzeko saioa.

Bilera hau prozesua ixteko saioa da, eta bertan, Talde Eragileak Udal ordezkariekin batera Erronka Kolektiboa gauzatu daitekeen edo ez, eta nola, erabakitzen dute.

Elkarrekin erabakitzeko saioan Talde Eragileak behin betiko proposamena prestatuko du, jada iradokizun teknikoetatik abiatuta beharrezkoak diren konponketak eginez. Saioa Ekintza Tailerran burutuko da.

Saio honen helburua da bi aldeek go-goeta egitea, elkarri entzutea eta egingadako lanaren inguruan iritzia partekatzea, ekimena martxan jartzeko aukera egokiena zein izan daitekeen **elkarrekin erabaki** ahal izateko.

Prozesu osoaren amaieran, gainera, ebaluazio partekatuta bat argitaratuko da, prozesuaren kontu-emate gisa balioko duena. Ebaluazio horretan, Talde Eragileak eta Udalak egindako lana, lortutako helburuak eta eskuraturako ikaskuntzak zehaztuko dira.

Eta prozesua amaitzen denean... Zer?

Behin herritarrek ekimenak garatu dituztenean eta teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak direnean, bi aukera egon daitezke, elkarrekin erabakitzeko saioan planteatutako egoeretan oinarrituta.

1. Gobernu taldearentzat eta arduradun teknikoentzat, ekimena interesgarria izatea udal arlo batetik babestu edo bultzatu nahi izatea.

Hala balitz, herritarrek eta udalak elkarrekin gauzatu beharreko ekimentzat hartuko litzateke. Bi aldeen erantzukizuna izango litzateke erronka hori nola gauzatu den erabakitzea eta dokumentu osoan zehar aipatzen den erantzunkidetasun hori agerian uztea. Horretarako, ibilbide-orri bat ezarriko dute proiektua gauzatzeko, eta zereginak eta erantzukizunak partekatuko dituzte.

2. Inplikaturako arloek herritarrek proposatutako ekimena onartzen ez dutenean.

Kasu horretan, teknikoki baliozkotu ondoren, aurrekontu irekietara bideratzen da, Leioako gainerako herritarren interesa balaratzeko, haiei aurkezten zaizkien beste proposamenekin batera. Kasu horretan, proposamena, une horretatik aurrera, Leioako Aurrekontu Irekien berezko arauen arabera arautuko litzateke.

